

IKASGAIAREN PROGRAMA/II



Ikasgaiaren programa  
**LATINA II**

## 1. IKASGAIAREN HELBURUAK

**H1.** Latindar zibilizaziotik jasotako ondare historiko, arkeologiko, artistiko, kulturalaren, pertsonalaren, erlijiosoaren eta soziopolitikoaren balorazio kritikoa egitea, haren giza sorkuntza eta historiaren lekukotza gisa betetzen duen papera azalduz, Haren garrantzia eta iraunkortasuna ulertzeko.

**H2.** Formante latinoak aztertzea eta bereiztea, hiztegi ezagunaren eta hitz berri edo espezializatuen esanahi etimologikoa ondorioztatuz, hizkuntza-aldaketak aztertuz eta formatzaile latindarren bilakaera ulertuz.

**H3.** Hainbat generotako eta alditako testu latindarrak, aztertzea, interpretatzea eta horiei buruz hausnartzea, sorkuntza-prozesua testuinguru historikoarekin, sozialarekin, politikoarekin eta eragin artistikoekin lotuta dagoela ezarri eta testu horien genealogia eta Europako literaturari egiten dioten ekarpen baliotsua deskribatuz.

**H4.** Testu latinoak itzultzea, ulertzea eta aztertzea, gramatika-, soziolinguistika- eta diskurtso-ezagutzak eskuratuz.

## 2. IKASGAIAREN EDUKIAK

Hiruhileko guztietan edukiak sailka daitezke hurrengo hiru multzoetan:

1. Gramatika
2. Bilakaera fonetikoa
3. Legatua eta ondarea

Lehenengo hiruhilekoa:

1. Gramatika:
  - a. Kasuak eta funtzioak
  - b. Lehenengo deklinabidea
  - c. Bigarren deklinabidea
  - d. Hirugarren deklinabidea (kontsonantez bukatutako hitzak)
  - e. *Sum* aditza (Orainaldia, iraganaldi burutugabe eta burutua)
  - f. Aditza (Orainaldia, iraganaldi burutugabe eta burutua).
  - g. Esaldi sinpleen sintaxia eta itzulpena.
2. Bilakaera fonetikoa:
  - a. Bokalen tonikoaren eboluzioa
  - b. Posizio atonoko bokalen bilakaera.
3. Legatua eta ondarea
  - a. Monarkia
  - b. Errepublikak

- c. Inperioa

Bigarren hiruhilekoa

1. Gramatika:
  - a. Hirugarren deklinabidea (bokalez bukatutako hitzak)
  - b. Laugarren deklinabidea
  - c. Bosgarren deklinabidea
  - d. Sum aditza (etorkizun burutu eta burutugabea, pluskuanperfektua)
  - e. Inperatiboa eta subjuntiboa (burutugabea)
  - f. Perpaus elkartuen sintaxia eta itzulpena
2. Bilakaera fonetiko:
  - a. Kontsonanteen bilakaera
  - b. Kontsonante taldeen bilakaera
3. Legatua eta ondarea:
  - a. Armada
  - b. Iberiar Penintsularen erromanizazioa
  - c. Erlijioa
  - d. Hildakoen gurtza

Hirugarren hiruhilekoa

1. Gramatika:
  - a. Subjuntiboa (burutua)
  - b. Ahots pasiboa
  - c. Egitura bereziak:
    - i. Ut/ne + indikatiboa/subjuntiboa
    - ii. Ablatibo absolutua
    - iii. Partizipiozko egiturak
    - iv. Erlatibozko perpausak
2. Ondarea et alegatua:
  - a. Erromatar egutegia
  - b. Erromatar hiria
  - c. Jendaurreko ikuskizunak
  - d. Erromatar zuzenbidea

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

	UNITATE DIDAKTIKOA		
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	1	2	3

1. Ebaluaketa			
2. Ebaluaketa			
3. Ebaluaketa			

1	Gramatika
2	Bilakaera fonetikoa
3	Ondarea eta legatua

### 3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki:

#### JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak, kontzeptuak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

#### JAKINTZAK PRAKTIKAN JARTZEKO SAIOAK

Ezagutza gramatikalak eta itzulpenak trebatzeko saioak izango dira, ikasle bakoitzak modu autonomoan lan eginda eta irakaslearen laguntzarekin. Tarteka, itzulpenen zuzenketarako, galderak planteatzeko... saioak egongo dira. Saio hauek aldeztu aurretik zehaztu eta adostuko dira ikasleekin egun horretarako zalantzak prestatu izan dituzten.

#### INTEGRAZIO JARDUERAK

Taldeka zein bakarka, zeregin ezberdinak gauzatu beharko dira saio hauetan, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta bereziki fisikak gizaratean izan duen garapena, ekarpen nagusiak eta etorkizunera begirako erronkak landuko dira.

### 4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzen eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko bi froga nagusi egongo dira:

#### AZTERKETAK

Ebaluazio bakoitzeko bi azterketa egingo dira:

1. Bitarteko kontrol bat, orain arte eskuratutako gramatika-ezagutza guztiak baloratuko dituen (substantiboen, adjektiboen, aditzen eta abarren deklinabidea).

2. Azterketa final bat, selektibitate-azterketa simulatuko duena: testu txiki baten itzulpena, hitz batzuen analisi morfologiko eta esaldi baten analisi sintaktikoa, termino batzuen bilakaera fonetiko eta, azkenik, formula juridiko eta sozial batzuei buruzko iruzkina.

## INTEGRAZIO JARDUERAK

Azterketez gain, ikasleek integrazio-jardura bat egin beharko dute: ikasleak ebaluazioan zehar eskuratutako ezagutza gramatika teoriko eta praktikoak guztiak bilduko dituen eskuliburu bat sortzea. Kontzeptuak ondo antolatzen, kontzeptuari eusten dioten adibideak aurkitzen eta praktikatzeko balioko duten ariketak sortzen jakin beharko dute.

## GELAKO JARDUNA

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte hartzea
  - a. Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
  - b. Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Teknologiako ikasgaietan Teknologiako apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.
  - c. Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoaia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza
  - a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
  - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia
  - a. Asistentzia: Ikasgaietan justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da.
  - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
  - c. Puntueltasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
  - d. Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...

- e. Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetzaz: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

## 6. KALIFIKAZIO-SISTEMA

### EBALUAZIO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Ebaluazio bakoitzaren azken nota parametro hauen zenbaketa izango da:

EBALUAZIO BAKOITZEKO EBALUAZIOA			
Atala	1 <sup>a</sup>	2 <sup>a</sup>	3 <sup>a</sup>
Kontrola	%30	%30	%30
Azterketa finala	%40	%40	%40
Porfolioa	%20	%20	%20
Jarrera	%10	%10	%10

Hainbat zirkunstantziagatik aldaketak egon daitezkeela ulertzen da, eta horrek parametro bakoitzaren portzentajezko pisua igotzea edo jaistea ekarriko luke.

### OHIKO DEIALDIAREN ETA EZ-OHIKO DEIALDIAREN KALIFIKAZIOA

Ikasleak hiru ebaluazioak gainditzen ez baditu, edo hiruren batez bestekoa 5 edo gehiagokoa ez bada, ohiko deialdian egingo den proba baten bidez berreskuratzeko aukera izango du. Deialdi honetan, honako hauek

izango dira ehunekoak: % 30 edukiak, % 70 gaitasunak (itzulpena) eta % 10 hiru ebaluazioetako bakoitzean jarreran lortutako noten batez besteko nota.

Ezohiko deialdian ohiko deialdirako proposatutako eredu berari jarraituko zaio.

#### IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Ikasturteko batez besteko nota kalkulatzeko orduan, ebaluazio bakoitzak pisu espezifiko desberdina izango du; hala, lehenengo ebaluazioak amaierako notaren % 20 hartuko du, bigarrenak % 30 eta hirugarrenak % 50.

Hortik ondorioztatzen da, ebaluazio jarraia bada ere, ez dela nahikoa izango hirugarren ebaluazioa gainditzea; gainera, hiru ebaluazioen batez besteko nota, horietako bakoitzak ikastaroko batez besteko notan duen pisu espezifiko kontuan hartuta, 5 edo gehiagokoa izan beharko da.